

ar**o**a

ZUMAIA

EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA

2024-2034

Zumaia
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

 **ahize** *æk*
hizkuntza aholkularitza



aurkibidea

1. SARRERA	3
2. AROA MARKOA	4
3. GENERO BERDINTASUNA	6
4. ANTOLAKETA	7
5. EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA ZUMAIAN	10
5.1. Gobernantza	12
5.2. Jarrerak / motibazioak	17
5.3. Ezagutza / gaitasuna	21
5.4. Erabilera / elkarreragina	25
5.5. Berrikuntza	28
5.6. Ikerketa / sistematizazioa	29
5.7. Komunikazioa / hedapena	30
6. LEHEN URTERAKO LANAK	31



1. SARRERA

Zumaiako Udalak, Ahize-AEKren aholkularitza zerbitzuarekin batera, 2024-2034 bitartean Euskararen Plan Estrategikoaren erronka nagusiak irudikatzeko hausnarketa eta eztabaida prozesua sustatu du. Aipatutako prozesuak 6 hilabeteko iraupena izan du, 2024ko irailean hasi eta 2025eko urtarrilera arte. Hausnarketa horren bidez, egungo eta etorkizuneko helburuak marraztu eta euskararen normalizazioa bultzatzeko elkarlanerako eta koordinaziorako bideak zehaztu ditu.

2024-2034 plan estrategiko honetan 2024an herritarrekin batera egindako hausnarketatik ateratako indargune eta ahuleziak hobetzeko edota lantzeko proposamenak jaso dira, eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposatutako AROA marko estrategikoaren arabera kokatu dira.

Euskararen plan estrategikoa Zumaian 2024-2034 Udalbatzak aztertu eta ontzat eman beharko du. Ondoren, Udaleko Euskara Zerbitzuak bideratuta, lehen urterako plana diseinatu eta martxan jarriko du Euskararen Mahaiak.



2. AROA MARKOA

Eusko Jaurlaritzak euskararen erabilera indarberritzen jarraitzeko AROA marko estrategikoa onartu du 2024an. Orain arte Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) hamar urtean egon da indarrean, 2012-2022 bitartean. AROA marko orokor hau tokiko administrazio guztientzako baliagarria da. AROA adostasunean oinarritzen den elkarlanerako marko teoriko-praktikoa da. Xede du gizartea osatzen duten eragile publiko zein pribatu guztientzako marko eta bide orri bat eskaintzea datorren hamarkadarako, **euskal hiztunak sortu eta ahalduntzeko zein euskararen komunitatea sendotzeko**. Horrez gain, munduko hizkuntza aniztasunaren baitan gizarte justuago, ekitatiboago eta inklusiboagoa eraikitzen laguntzeko.

Aldian-aldian ebaluatua eta egokitua izango da, urtez urte ekintzen betetzea ebaluatu eta baloratuko da, desbideraketak eta hutsuneak zuzentzeko. Bestetik, plangintzaldi erdian helburu guztien betetze maila ebaluatuko da. AROAk parte hartzerako metodologia berritzailea baliatzea proposatzen du, gizarte eragileekin eta mugimendu sozialekin elkarlanean aritzea sustatuz.

AROAK epe luzeko ikuspegi estrategiko hau du:

- Euskararen transmisioa ziurtatuta izatea.
- Euskal hiztun aktibo gehiago izatea gizarte esparru guztietan.
- Ezagutzaren unibertsalizazioan aurrerapausoak ematea.
- Euskaratik urrun zeuden herritarrak zein gurera iristen ari diren herritarrak euskarara hurbiltzea.
- Gizartean behar handienak dituzten herritarrei behar bezalako babes, laguntza eta erraztasunak izatea, eta euskara haiena ere badela sentitzea.
- Euskaraz bizitzeko aukera zabalagoak izatea; babesgune gehiago izatea.
- Arnasguneen beheranzko joera etetea.
- Euskarak eta euskal kulturak prestigio handiagoa izatea.
- Ingurune digitalean euskarazko edukien eskaintza eta kontsumoa haztea.

Marko estrategiko honek **7 ardatz estrategiko** eta **14 erronka** jasotzen ditu, eta horiek garatzeko **30 lan ildo** eta **127 ekintza** zehaztu dira.



ARDATZ ESTRATEGIKOAK

GOBERNANTZA

- G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.
G.2. Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin zein kulturekin bizikidetzan.
G.3. Euskararen indarberritzea munduko hizkuntza-aniztasunaren balioetan kokatu.
G.4. Ingurune digitalean euskararen presentzia ziurtatzeko estrategia garatu.

JARRERAK/MOTIBAZIOAK

JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta portaeretan eragin.
JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.

EZAGUTZA/GAITASUNA

EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.
EE.1. Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko garatu..
estrategiak
EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.
EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzeritar jatorriko herritarren kopurua handitu.
EG.4. Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasunari (gaitasun erlatiboari) berariaz erreparatu.

ERABILERA/ELKARRERAGINA

EE.1. Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu

BERRIKUNTZA

- B.1. Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu.


KUDEAKETA-ARDATZ ESTRATEGIKOAK

IKERKETA/SISTEMATIZAZIOA

IS.1. Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.

KOMUNIKAZIOA/HEDAPENA

KH.1. Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio-estrategia aplikatu.





3. GENERO BERDINTASUNA

1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, hauxe xedatzen du 25.1. artikuluan: «EAEko botere publikoek genero-ikuspegia sartu behar dute beren plan sektorialetan eta estrategikoetan, eta neurriak sartu behar dituzte berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak desagerrarazteko». Hortaz, genero ikuspegiak zeharkako izaera du euskararen plan estrategikoan, Zumaiaiko Udalaren IV. Berdintasun Planean jasotako helburuak eta ekintzak bere egiten ditu, eta Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Udal Ordenantzan jasotako printzipioak eta neurriak ere bai. Besteak beste, jarraibide hauek kontuan hartuko ditu:

- Errealitate soziolinguistikoa genero ikuspegitik aztertuko du, emakumeen eta gizonen egoera berezituarekin (beharrak, arazoak eta interesak).
- Udalak egiten dituen inkesta, estatistika eta datu bilketetan genero aldagaia txertatuko du sistematikoki.
- Adierazle berriak ezartzea aztertuko du, genero aldagaia kontuan hartuz.
- Iturri ofizialetatik genero aldagaia duten datuak jaso eta aztertuko ditu.
- Lantzen diren plan, txosten eta antzekoetan genero irakurketa egingo du, beti, eta saiatuko da interseksionalitatearen arabera aldagai gehiago ere aintzat hartzen: jatorria, aniztasun funtzionala, adina...
- Berdintasun klausulak txertatuko ditu Euskara Zerbitzuak egiten dituen hitzarmen eta dirulaguntzetan.
- Komunikazio inklusiboa zainduko du eta erabat bermatuko da hizkuntzaren erabilera ez-sexista, baita Udalak egiten dituen kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan.
- Plana garatzeko jardueren deialdietan ordutegiak aintzat hartuko dira zaintza lanez arduratzen direnen parte hartzea errazteko.
- Denontzat erosoak izan daitezkeen espazioak aukeratuko ditu elkartzeko eta interbentzioak eta denborak orekatzeko neurriak hartuko ditu.
- Egiturak eta taldeak osatzeko orduan partaideen arteko oreka zainduko da (% 60 - % 40).
- Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeen partaidetza sustatuko du eta prozesuetan ahalduztzean positiboki eragin.




4. ANTOLAKETA

Herritarren, herriko eragileen, udal langileen zein ordezkari politikoen arteko elkarlanean eta lankidetzan oinarritutako metodologia aplikatuko da, haien arteko sinergiak sustatuko dituen. Testuinguru horretan, guztien artean udalerriko zein Udaleko planak elikatzeko ideiak osatu, sortu eta garatuko dira, talde izaera sendotuz eta ikuspegi bateratu eta koherentea lortzeko bidea eginez. Zeregin horretan Euskara Zerbitzua gidari izango dute, taldeen dinamizazioaz arduratuko dena. Era berean, Zerbitzuaren lana izango da, komunikazio arduradunarekin batera, komunikazio arloa lantzea, arrakastarako gakoa da-eta. Horrela, Zumaiaiko Euskararen Plan Estrategikoa ezagutarazi eta herritarren parte hartzea sustatuko da.

Plan estrategikoaren helburuak lortzeko hiru bilgune sortzea aurreikusi dira:

1. Transmisio bilgunea
2. Kirol bilgunea
3. Kultur bilgunea



**TRANSMISIO
BILGUNEA****Osaera**

- Udala (Hezkuntza Saila eta Berdintasuna, partaidetza, gazteria eta etorri berriak)
- Ikastetxeak
- AEK
- Guraso elkarteak
- Aisialdi taldeak
- Larraina elkarteak
- UEMA

Eginkizunak

- Arloko gaiak landu
- Ekintzak bateratu
- Sinergiak sortu
- Azpitaldeak (gai zehatzak lantzeko)

Langaia

- Haur eta gazteen erabilera
- Gurasoak: etxeko hizkuntza, euskalduntzea, transmisioa
- Etorri berriak euskarara hurbildu, inklusioa

**KULTUR
BILGUNEA****Osaera**

- Udala (Kultura Saila)
- Kulturgintzan aritzen diren taldeak
- Larraina elkarteak

**KIROL
BILGUNEA****Osaera**

- Udala (Kirol Saila)
- Kirol taldeak
- Larraina elkarteak
- Bazkide-erabiltzaileak (ordezkariak)

Eginkizunak

- Arloko gaiak landu
- Ekintzak bateratu
- Sinergiak sortu
- Azpitaldeak (gai zehatzak lantzeko)

Langaia

- Euskara planak sustatzeko prozesuak martxan jarri
- Kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu
- Praktika onak identifikatu eta zabaltu

Eginkizunak

- Arloko gaiak landu
- Ekintzak bateratu
- Sinergiak sortu
- Azpitaldeak (gai zehatzak lantzeko)

Langaia

- Euskal kulturaren transmisioan eragin
- Euskarazko kultura produktua sortu eta ezagutarazi
- Kultur topagunea baliatu etengabeko dinamika baten indargune izan dadin



Erronka nagusi hauek izango ditu antolaketa berriak:

- Euskararen biziberritzea ikuspegi komunitariotik lantzen duen herria: herriko hizkuntza politikaren gidaritzarako eta jarraipenerako gobernantza partekatua ere duen antolaturiko parte hartzerako gunea sortzea.
- Hizkuntza portaera kontzienteak dituen herritar sareak: herritarrek euskararen, Zumaiaiko eta Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoaren eta hizkuntza ohituren kontzientzia hartzea.
- Euskaraz bizi den herria: euskara Zumaiaiko bizikidetzarako muina izatea.
- Euskaraz bizi den herri eleaniztuna izatea eta hori herritarren artean baneratzeko lortzea.

Jarraipena

Euskararen Mahaia izango da Zumaiaiko Euskararen Plan Estrategikoaren jarraipenerako gunea. Askotariko eragilez osatutako organo berriaren ardura izango da planaren jarraipena eta proposamenak egitea. Era berean, Udalbatzak erraztu beharko ditu pertsona eta diru baliabideak, planaren betetzea bermatzeko. Halaber, Euskararen Mahaia "herri mailako erabakiak" hartzen lagunduko du, eta horretarako baliatuko da. Izan ere, euskararen inguruan kontzientziatuta dauden herritar eta eragileez osatutako gunea izango da, herriko hizkuntza politikak eztabaidatzeko eta proposamenak adosteko gunea, alegia. Udaleko ordezkariak gain, UEMAko eta Larraingo ordezkariak ere parte hartuko dute, eta urtean gutxienez bi bider elkartzeko da.

Bost urtera, arnasberritzea

Hamar urteko iraupena izango du euskararen plan estrategiko honek, eta ekintzak hala zerrendatu dira. Txosten honetan, ordea, ez dira ekintzak urteka zehaztu, hori Udalaren, Euskararen Mahaia zein arloko bilguneen ardura izango da. Horrez gain, bost urte barru dokumentu hau berritu, eta egin dena ebaluatuko da. Horren arabera, hurrengo bost urteetarako helburuak eta ekintzak antolatuko dira. Honek guztiak nahi estrategikora iristeko ibilbidean arnasberritze bat emango du.



5. EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA ZUMAIAN

Zumaian euskara sustatzeko estrategiak jasotzen dituen dokumentua da Euskararen Plan Estrategikoa; datozen urteetan Zumaian euskara indartzeko herritarrek eta Udalak izango duten lanerako tresna.

NAHI ESTRATEGIKOA: Zumaia euskal hiztun kontziente eta aktiboak dituen herria izatea, euskararen erabilera handitzeko.

MISIOA: Zumaiko eragile publiko zein pribatu guztientzako marko eta bide orri bat eskaintzea datorren hamarkadarako, euskal hiztunak aktibatu eta ahalduntzeko nahiz euskararen komunitatea sendotzeko eta Zumaia euskaldunago, justuago, berdinzaleago eta inklusiboago eraikitzen laguntzeko.

IKUSPEGIA:

- | | | |
|--|--|--|
| <ul style="list-style-type: none">• Euskararen transmisioa ziurtatuta dago Zumaian.• Hiztun aktibo gehiago daude gizartearen esparru guztietan• Urrun zeuden herritarrek eta etorri berriak euskarara hurreratu dira, laguntza eta babesa eman zaielako. | <ul style="list-style-type: none">• Bisitariak ikusten dute euskara Zumaiaaren ikur edo ezaugarria dela.• Hizkuntza portaera kontzientea duten herritarrek euskal komunitate indartsua osatzen dute.• Herritarrekin elkarlanean eta eragileen sinergiak batuta, politika ausartak bideratzen dira. | <ul style="list-style-type: none">• Euskarak eta euskal kulturak prestigio handiagoa dute.• Ingurune digitalean euskarazko edukien eskaintza eta kontsumoa hazi egin dira.• Euskaraz bizitzeko gero eta aukera handiagoa dago babesguneei esker. |
|--|--|--|



AROA markoan zehazten denez, plan estrategikoa aurrera eramateko, ardatz batzuei jarraitu behar zaie, eta horiek lehentasunen arabera ordenatu. Hauek dira finkatutako ARDATZAK, euskararen jakintzaren eta erabileraren aldeko aurrerapausoak emateko:

1. GOBERNANTZA
2. JARRERAK / MOTIBAZIOAK
3. EZAGUTZA / GAITASUNA
4. ERABILERA / ELKARRERAGINA
5. BERRIKUNTZA
6. IKERKETA / SISTEMATIZAZIOA
7. KOMUNIKAZIOA / HEDAPENA

Euskararen sustapenerako Zumaian egingo diren ekintzak helburu, erronka eta ardatz horien arabera sailkatu ditugu plana osatu ahal izateko.



5.1. Gobernantza

AROaren nahiari erantzuna emateko egituratze eta lankidetzaren eredu propio bat proposatzen da. Zumaian gobernantza eredu jakin bat behar dugu, zeharkakotasunean eta parte hartze koordinatuan oinarritutakoa, eta era berean, tokian tokikoa, hau da, Zumaiko beharrei lekua egingo diena. Euskara Zerbitzuak edota euskalgintzak egingo duen jardunarekin batera, gizartearen esparru guztietatik eraldatu nahi da euskararen indarberritzea.

G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.

LAN ILDOAK	
1.1	Herritarren hizkuntza eskubideen aldeko politikak garatu.
1.1.1	Erakunde publiko eta pribatuekin lan egin herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eginbeharrez jabe daitezen.
	1. Udalak hizkuntza irizpideak txertatu kontratazio, baimen eta dirulaguntzetan, eta betetzen direla ziurtatzeko jarraipena egin. 2. Udalean herritarra euskaraz artatua izan dadin bermatu eta jarraipena egin. 3. Hizkuntza eskubideen urraketen aurrean bideratzen lagundu eta jarraipena egin, Udalez gaindiko erakundeekin batera.
1.2	Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzional zein sozialean.
1.2.1	EAEko administrazioen artean zein administrazio bakoitzaren barruko sail edo atalen artean elkarlana bultzatu.
	1. Udalaren plan estrategikoa eta UEMArena bateratu, elkarren osagarri izan daitezen. 2. Hizkuntzen kudeaketa euskara sailaz gaindiko eremuetara eraman, zeharlerro gisa, eta lanketarako bideak topatu. 3. Beste euskara teknikari eta zerbitzuekin koordinazioa eta elkarlana bultzatu: UKUEn (mankomunitateko herriekin), UEMAren (Deiadarka foroa) eta Gipuzkoako beste erakundeekin (Aldundia, Udal-ekin foroa). 4. Beste administrazioekin harremanak euskara hutsean izan daitezen pausoak eman.
1.2.3	Erakunde publikoen eta euskalgintzako eragileen arteko elkarlana bultzatu.
	1. Herriko Euskara Mahaia eratu eta abian jarri. 2. Herriko elkarte eta erakunde esanguratsuenekin harreman iraunkorra landu (Larraina, GUKA, AEK...), ahal denean hitzarmenak sinatuta eta elkarlan jarraitua bultzatuta.



1.2.4	Euskararen normalizazioan ari diren pertsonak, elkarteak, erakundeak, hedabideak, enpresak... saretu
	1. Euskararen erabilera erreferenteak diren edo izan daitezkeen elkarteak eta erakundeak identifikatu, erreferentziazko pertsonak izendatzea erraztu, haiekin elkarlana areagotzeko. 2. Herriko erakunde eta elkartei euskara bultzatzeko baliabideak eskura jarri. 3. Arloka eta gaika osatutako taldeak antolatu (transmisio bilgunea, kirol bilgunea, kultur bilgunea) eta urteroko dinamika ezarri.
1.3	Euskararen biziberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu.
	1. Udalaren erabilera planaren berri eman herritarrei: helburuak, aurrerapausoak, lorpenak... 2. Arduradun politiko eta teknikoekin euskararen inguruko sentsibilizazioa eta kontzientziazioa landu, soziolinguistikan, hizkuntza lidergoan eta euskara biziberritzeko prozesuetan trebatuta.
1.3.1	Euskara zerbitzuen funtzionamenduaren eta berregituratzearen inguruan hausnartu.
	1. Euskara Zerbitzuaren funtzioak eta lan ildoak berrikusi, berrikuntza oinarri hartuta.
1.3.3	Administrazio publikoek euskararen biziberritzearen aldeko jokabide eredugarriak areagotu.
	1. Udalaren erabilera plana bete, erakundea babesgunetzat hartuta. 2. Hala behar duten plan eta proiektuei Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) egingo zaiela ziurtatu.

ERAGITEKO SEKTOREAK

Udala osotasunean (arduradun politikoak eta langileak), elkarte eta eragileak

ARDURADUNAK

Ordezkaritza politikoak, Euskara Zerbitzua, UEMA.



G.2. Berriarazko nahiz zeharkako hizkuntza politika garatu, gainerako hizkuntza nahiz kulturekin bizikidetzan

LAN ILDOAK	
2.1	Eremu soziolinguistikoetarako hizkuntza politika berezituak garatu
2.1.2	Bilakaera demografikoak dakartzan hizkuntza erronkei aurre egiteko, tokian tokiko estrategiak landu eta ekimenak bultzatu.
	1. Arnasgune izendatutako auzoetarako (Oikia...) politika eta irizpide propioak landu. 2. Etorri berrientzako harrera planari eta protokoloari jarraipena egin eta herriko aniztasunaren diagnostikoa osatu. 3. Elkar ezagutza eta elkarbizitza sustatuko dituzten egitasmoak martxan jarri.
2.2	Zeharkako hizkuntza politika garatzeko estrategiak garatu.
	1. Udaleko sailekin koordinazioa areagotu, euskara beren jardunean gehiago txertatzeko. 2. Ordenantzen eta dirulaguntzen oinarrien tramitazioan hizkuntza txostenak egin.
2.3	Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik.
2.3.4	1. Hezkuntza komunitateko eragileak (irakasle, ikasleak, familia...) eta udalak biziberritze prozesuaren parte aktibo bihurtu, sentsibilizatuz, komunikazio esparruak zabalduz.
	2. Ikastetxeekin etengabeko harremana izan, euskararen erabilera sustatzeko dituzten behar eta hutsuneei erantzuteko eta estrategiak elkarrekin lantzeko. 3. <i>Euskara eta kulturartekotasuna hezkuntzan</i> proiektua sustatu.

ERAGITEKO SEKTOREAK

Ikastetxeak, etorri berriak, harrera elkarteak...

ARDURADUNAK

Euskara Zerbitzua, Berdintasuna, partaidetza, gazteria eta etorri berrien saila, UEMA



G.3. Euskararen biziberritzea munduko hizkuntza aniztasunaren balioetan kokatu.

LAN ILDOAK	
3.1	Euskara munduko hizkuntza gutxituen testuinguruan ulertu eta ikuspegi hori gizarteratu.
3.1.3	1. Hizkuntza gutxituen komunitateen arteko lan sareak hedatu eta sendotu.
	2. Etorri berrien jatorrizko hizkuntza aintzat hartu, eta Zumaian hitz egiten diren beste hizkuntza batzuei ikusgarritasuna eman (101 L egitasmoa...)
	3. Hizkuntza gutxituen komunitateen berri eman hitzaldi zikloetan edo antzeko guneetan.

ERAGITEKO SEKTOREAK
Etorri berriak, ikastetxeak...
ARDURADUNAK
Euskara Zerbitzua, Berdintasuna, partaidetza, gazteria eta etorri berrien saila, Larraina



G.4. Ingurune digitalean euskararen presentzia ziurtatzeko estrategia garatu.

LAN ILDOAK	
4.1	Euskarazko eduki, tresna, aplikazio eta baliabide digitalen eskaintza eta kontsumoa areagotzeko estrategiak garatu.
4.1.3	Euskarazko eduki, tresna, aplikazio eta baliabide digitalen kontsumoa areagotzeko zabalkunde estrategia egokiak diseinatu eta gauzatu.
	1. Zumaiarrak bilduko dituen komunitate digital bat sortu (edo lehendik dagoena erabili) sare sozialetan, eta bertarako berariaz eduki digitalak sortu. 2. Bideo lehiaketak antolatu eta bultzatu. 3. Gazteen kontsumo kulturala aztertu, joerak ikusteko eta proiektuak lantzeko.
4.2	Arlo digitaleko era guztietako enpresa eta erakundeekiko harremanak ahalbidetu eta aliantzak landu.
	1. Zumaia GUKA hedabidearen bidez sare sozialetan mugimendua sortu: lehiaketak egin (Lapetan...) eta abar. 2. PuntuEUS fundazioarekin harremanak landu, elkarlanean egitasmoak bideratzeko: EUS domeinuak... 3. KZgunearekin harremanak landu euskarazko bertsioak eta edukiak bultzatzeko.
4.4	Adimen artifizialean euskara hizkuntza nagusien pare egoteko lanketa bultzatu.
	1. Gaitu.eus edo antzeko proiektuak sustatu adimen artifizialak euskaraz egin dezan.

ERAGITEKO SEKTOREAK

Herritarrak oro har, gazteak, elkarteak, enpresak...

ARDURADUNAK

Euskara Zerbitzua, ikastetxeak, Larraina, UEMA



5.2. Jarrerak / Motibazioak

Hiztunek euskararekiko duten motibazioak izango dira ardatz atal honetan. Hitzunaren motibo psikosozialean jarriko da arreta hiztun bakoitzak dituen motibazio iturrietan lan egiteko, horiek eraldatzeko edo indartzeko.

JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduztzean, hizkuntza ohituretan eta portaeretan eragin.

LAN ILDOAK	
1.1	Euskaldun izatearen kontzientzia eragin.
1.1.1	Euskaldunen hizkuntza eskubideen gainerako kontzientzia areagotu.
	1. Euskararen historia eta garrantzia ardatz dituzten lanak (liburuak, ikus-entzunezkoak...) tresna gisa erabiltzen jarraitu. 2. Hausnarketa kanpainak egin euskararen egoera ezagutarazteko, UEMAren bideo laburrak eta antzekoak erabilia. 3. Hizkuntza paisaia euskalduntzeko kanpainak egin.
1.1.2	Euskal identitate askotarikoek euskararekin duten lotura aztertu eta estrategiak landu.
	1. Guraso / familia tipologia bakoitzerako estrategiak eta euskarriak sortu hizkuntza ohiturei lotuta. 2. Egutegiak banatzen jarraitu eta gurasoentzako hizkuntza jarraibideak eman.
1.1.3	Euskara ikasteko, erabiltzeko eta transmititzeko motibazioak landu, bereziki zainduz harreman eta lagunarte berriak sortzen diren uneak.
	1. Mintzalaguna eta antzeko programak sustatzen jarraitu: gurasolagun, mendilagun, hikalagun, gazteena... 2. Euskara ikasleei, eta oro har, ezagutza mugatua edo pasiboa duten herritarrei, erabilera aukerak eskaini, aisialdiari lotuta. 3. Euskara ikasteko aukera berriak sortu, beren beharretatik gertuago: gurasoak, etorri berriak, merkatari eta ostalariak... 4. Haurreskolarekin eta gizarte zerbitzuekin elkarlanean, hitzaldi eta Guraso Eskoletan zeharka hizkuntzen gaia landu. 5. Guraso gazteei euskararen kontzientziazioan eragiten jarraitu.
1.2	Gizartea aktibatzeke esperientziak indartu eta hedatu.



1.2.1	Lehen hitza euskaraz egitera gonbidatzeko ekimenak gauzatu.
	1. Aktibaziorako dinamikak indartu eta hedatu: Euskaraldia, Korrika, Euskararen astea... 2. Euskararen motibazio saioak indartu eta hedatu, baita hezkuntzaz kanpoko alorretan ere. 3. Abizenak euskaraz jartzeko kanpaina egin eta informazioa zabaldu.
1.2.2	Eskaintza eta eskaera aktiboak eta jarrera proaktiboak bultzatu administrazioan, arlo sozioekonomikoan eta herritarren artean.
	1. Enpresetan euskara planak sustatu, Urola Kosta elkartearen bidez, eta plana duten enpresen lana gizarteratu. 2. Euskararen aldeko adierazgarriak eta ziurtagiriak bultzatu udalerriko entitate pribatu eta publikoetan. 3. Jarduera sozioekonomiko berrietan euskara ardatz izatea bultzatu. 4. Gidabaimena euskaraz egitasmoa sustatu, zozketak eta komunikazioa erabilia.
1.3	Hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin.
1.3.1	Euskara biziberritzeko arrazoiak landu eta gizarteratu
	1. Aisialdia euskaraz izateko aukerak zabaltzen jarraitu.
1.3.2	Ahalduntze prozesuak sortu eta dinamizatu.
	1. Gazteak beste gazteen eredu zein eragile izateko praktikak sustatzen jarraitu: udaleku bereziak (Salto!, Euskarabentura...). 2. Ikastetxeetan HEDATU proiektua eta soziolinguistika saioak sustatzen jarraitu, komunitate osoan sentsibilizazioa lantzeko. 3. Begiraleak eta hezitzaileak trebatu soziolinguistikian eta erabilera estrategietan. 4. Kontzientziazioan eta ahalduntzean eragiteko ekimenak antolatzen jarraitu: <i>Euskara, bestela ez gara</i> hitzaldi zikloa, emanaldiak, Arnasa Gara kanpaina... 5. Kirol klubekin eta elkarteekin lanean jarraitu euskara sustatzeari begira.

ERAGITEKO SEKTOREAK

Gurasoak, haur eta gazteak, herritar euskaldunak, klub eta elkarteak, entitate pribatu eta publikoak

ARDURADUNAK

Euskara Zerbitzua, UEMA, Larraina, AEK...



JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.

LAN ILDOAK	
2.1	Euskaldunen komunitatea sendotu.
2.1.1	Komunitatearekiko atxikimendua lortzeko eta komunitatearen parte izateko bideak aztertu eta estrategiak landu.
	1. Euskaraz hitz egiteko gune erosoetan ekitaldiak egin (mintzalagunen jaia...). 2. Herriko euskararen historia sozialaren transmisioa egin: unitate didaktikoak landu eta herrian barrena ibilbideak antolatu gaia gizarteratzeko. 3. Ikasleekin lantzen diren herriko egitasmo berezietan hizkuntzaren alderdia indartu: <i>Zumaia ezagutzen...</i> 4. Euskara ikasten hasi berri direnei euskararen inguruko saioak eman, gogoeta egin eta aurrera begira baliabideak eskaintzeko.
2.2	Euskararen erakargarritasuna landu eta hedatu.
2.2.1	Gizartearentzat erreferenteak diren pertsonekin zein erakundeekin euskara sustatzeko lanketa egin.
	1. Gazteentzat erreferenteak izan daitezkeenak ekarri (futbolariak, musikariak, umoregileak, aktoreak...) 2. Euskaldun eredugarriak ikusarazi, ezagutarazi.
2.3	Euskal hiztun mota eta komunikazio egoera askotarikoak balioetsi.
	1. Interseksionalitatea landu bestelako zapalkuntzak bizi dituzten herritarrengana iristeko. 2. <i>Egin nirekin ere euskaraz</i> kanpaina bultzatu, hiztun arrazializatuekiko jarreran eragiteko.
2.4	Euskarara hurbildu ez diren herritarrak euskarara erakarri.
2.4.5	Atzerritar jatorriko herritarren kultura eta hizkuntzaren, eta euskal kultura eta euskararen arteko zubia egiteko estrategia hezitzaileak diseinatu.
	1. Etorri berriei mentore edo bidelagunak ezarri euskararantzko bidean laguntzeko, Oikia eta gune euskaldunenetan bereziki.



2.4.6	Hizkuntza aniztasunari buruzko diskurtsoa aberastasun gisa eraikitzen lagundu.
	1. Hizkuntza aniztasunari buruzko hausnarketa eta ekintzak bideratu.
2.5	Euskarak eta euskal kulturak duten nortasun propioaren indarra baliatu eta erakutsi.
	1. Bisitariei euskararen berri emateko eta euskara partekatzerara animatzeko lanketak egin (Ongi Etorri Euskararen Herrira, Bertatik bertara...) 2. 'Euskararen enigma' bisita gidatua zabaldu bisitarien artean.

ERAGITEKO SEKTOREAK

Euskaldunak, euskaratik urrun dauden herritarrak, euskara ikasleak, turistak.

ARDURADUNAK

Euskara Zerbitzua, Turismo eta merkataritza saila, AEK, Larraina, ikastetxeak



5.3. Ezagutza / Gaitasuna

Euskararen ezagutza zein hiztunen komunikazio gaitasunean jarriko da arreta. Horretarako hiztunak dituen behar soziolinguistiko zein komunikatiboak hartuko dira aintzat, euskara komunikazio egoera ezberdinetan gaitasunez baliatzeko.

EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.

LAN ILDOAK	
1.1	Euskara eta euskal kulturari buruzko ezagutza gizartean orokortzeko bideak jarri.
1.1.1	Belaunaldien arteko harremanak ehundu.
	1. Belaunaldien arteko guneak eta egitasmoak bultzatu Zumaian eta Oikian euskara jakitearen eta euskal kulturaren onurez aritzeko.
1.2	Familia transmisioa bermatzeko bideak jarri.
	1. Euskal abestien eta jolasen tailerrak antolatu gurasoei zuzenduta. 2. Ume jaioberrien gurasoei familia transmisioaren garrantziaz ohartarazteko materiala eman. 3. HHko aurrematrikulazioan familia transmisioari buruzko datuak bildu eta aztertu.
1.3	Hezitzaileei eta irakasleen gaitasuna handitu hizkuntza kudeaketan zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoan.
	1. Hezitzaileei eta irakasleei prestakuntza eta baliabideak eskura jarri.

ERAGITEKO SEKTOREAK

Gurasoak, belaunaldi bateko eta besteko herritarrak, hezitzaileak, begiraleak

ARDURADUNAK

Euskara Zerbitzua, UEMA, Larraina



EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.

LAN ILDOAK	
2.1	Ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitu eta tresnak sortu.
2.1.1	Euskara testuinguru askotarikoetan erabiltzeko ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuak bultzatu, eta horretarako euskara estandarra zein tokiko hizkerak elikatu, aberastu eta sendotu, eta adierazkortasuna indartu, hizkuntzaren kalitatea bermatuz.
	1. Literatura sustatzeko proiektuak bultzatu (Julene Azpeitia ipuin lehiaketa...). 2. Ikastetxeetan saio bereziak antolatzen jarraitu idazkuntza, kazetaritza poesia lantzeko. 3. Hitanoa eta bereziki noka bultzatzeko baliabideak lantzen jarraitu: APPA HI aplikazioa, ikastaroak...
2.1.3	Hizkuntza eta kultura ondarea jaso, eta gaur egungo beharrei erantzuteko baliabideak sortu nahiz zabaldu.
	1. <i>Zumaia</i>ko <i>ahotsak</i> egitasmoa elikatzen eta gizarteratzen jarraitu.
2.2	Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.
	1. Eremu sozioekonomikoan prestakuntza berezitua sustatu, helburu zehatzak lantzeko: merkataritzan, ostalaritzan... 2. Oinarrizko euskara ikasteko aplikazioak eta material bereziak bultzatu. 3. Oinarrizko ulermena eta jabetasuna lantzeko metodologia berriak sustatu eta probatu. 4. Euskara ikasteko dirulaguntzak ematen jarraitu.

ERAGITEKO SEKTOREAK

Arlo sozioekonomikoa, euskara ikasleak, euskara ikaslegaiak

ARDURADUNAK

Euskara Zerbitzua, Larraina, AEK



EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzeritar jatorriko herritarren kopurua handitu.

LAN ILDOAK	
3.1	Atzeritar jatorriko herritarrak euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak eman.
	1. AISA ikastaroak antolatu etorri berri helduentzat. 2. Haur etorri berriei errefortzu eskolak ematen jarraitu eta euskarazko aisialdian parte hartzeko bideak erraztu. 3. Helduen irakaskuntzako zentrori (EPA) doazenei euskarari buruzko informazioa eman.

ERAGITEKO SEKTOREAK

Etorri berriak, etorri berri gazteak

ARDURADUNAK

Euskara Zerbitzua, Etorri berrien saila, AEK, ikastetxeak



EG.4. Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasuna (gaitasun erlatiboa) berariaz zaindu.

LAN ILDOAK	
4.2	Euskara gaitasuna hobetzen lagundu, adierazkortasunari bereziki erreparatuz.
	1. Zumaian erabili ohi diren hitzak edota esapideak ezagutarazten jarraitu. 2. <i>Gu ere bertsoan</i> programa lantzen jarraitu ikastetxeetan eta bertso jarduerak bultzatu herrian.

ERAGITEKO SEKTOREAK

Gazteak, herritarrak

ARDURADUNAK

Euskara Zerbitzua, ikastetxeak



5.4. Erabilera / Elkarreragina

Hiztunen arteko elkarreraginean gertatzen diren egoera komunikatiboei begira jarritz eragin nahi da: euskara ulertu edota erabiltzeko baldintzak, elkarrekintza egoeretako hizkuntzen arteko joan-etorriak, hiztunen arteko botere harremanen zer-nolakoak, hizkuntza ohiturak...

EE.1. Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.

LAN ILDOAK	
1.1	Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu.
	1. Ludotekaren eta Gaztegunearen bidez irteerak egiten jarraitu, aisialdian euskararen erabilera sustatuta, haur eta gazteen erabilera handitzeko. 2. Musika Eskolarekin harremanak lantzen jarraitu, babesgune izaerari eutsi diezaion. 3. Irakurle taldeari eutsi eta indartu.
1.1.1	Belaunez belauneko transmisioa indartu eta etxeko erabilerari eutsi.
	1. Adinekoen bidez hizkuntzaren transmisioa egitea bultzatu. 2. Hurrei euskaraz egitearen garrantzia nabarmentzeko ekimenak bultzatzen jarraitu: eskutitzak, kotxeko pegatina, musika...
1.1.2	Zaintza guneeetan euskararen erabileran eragin.
	1. Herriko zahar etxe eta egoitzekin (Otezuri, San Juan, Beheko plaza...) harremanak estutu, elkarlanean erabilera zabaltze aldera. 2. Zaintza alorreko langileentzat euskara ikastaro laburrak antolatu edo bultzatu.
1.1.3	Euskara lan eta zerbitzu hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan.
	1. Euskara erabiltzearen aldeko konpromisoak eskatu erakunde publikoen hornitzaileei, elkarteei, saltokiei... 2. Lehen hitza euskaraz egiteko kanpainak egin. 3. Merkatariei errotulazioa eta webgunea euskaraz jartzeko laguntza eman. 4. Merkataria eta elkarteentzako itzulpen laburren zerbitzua ematen jarraitu eta aldiro horren zabalkundea egin.



	5. Aldibereko itzulpena egiteko dauden aukeren berri eman herriko taldeei eta baliabideak eskura jarri (gailuen poltsa). 6. Finantza entitateekin hitzarmenak egin, UEMArekin bitartez, eta horietan euskararen erabilera bermatu.
1.1.4	Hezkuntzako, udaletako edo mankomunitateetako eta euskalgintzako eragileak elkarlanean, tokian tokiko hizkuntza proiektuen bidez, hitzun osoak sortzeko estrategiak diseinatu eta ekimenak garatu, motibazio eta gaitasun sistemetan eraginez.
	1. Enpresetan praktikak euskaraz egiteko sustapen lana egin, UKUErekin elkarlanean.
1.1.5	Aisialdi antolatua eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu.
	1. Entrenatzaile euskaldunak lehenesteko neurriak hartu. 2. Kiroleko entrenamenduetan euskararen erabilera areagotzeko behaketak egin eta entrenatzaileekin estrategiak landu. 3. Kirol arloan euskararen erabilera areagotzeko abian dauden praktika onak identifikatu eta zabaldu 4. Kiroldegia euskararen babesgune moduan indartu. 5. Helduen euskarazko aisialdia bultzatu eta indartu. 6. Euskarazko zinema bermatzeko neurriak bultzatzen jarraitu: kontratuan baldintzak, emanaldi bereziak...
1.1.6	Ingurune digitalean euskara erabiltzeko espazioak irabazi.
	1. Hizkuntza teknologiek euskararen erabileran izango duten inpaktuan ahaldundu herriko euskalgintza. 2. Euskarazko ikus-entzunezkoen eskaintza sustatu, Pantailak euskaraz eta antzeko egitasmoak ezagutarazita.
1.1.7	Euskarazko hedabideak sustatu
	1. GUKA proiektua laguntzeko hitzarmenarekin jarraitu. 2. Euskarazko komunikabideak ezagutzera emateko proiektuak bultzatu.
1.1.8	Euskarazko kultura produktuak ezagutarazi, kontsumoa areagotzeko.
	1. Euskarazko produktuak ezagutzera eman: katalogoa zabaldu, webgunean...
1.1.9	Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabil dezaten
	1. Gidabaimenak euskaraz ateratzeko sustapena egin. 2. Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpainak egiten jarraitu, UEMArekin elkarlanean. 3. Osasun arreta euskaraz jasotzeko kanpainak egiten jarraitu, UEMArekin elkarlanean.



1.2	Eremu sozio-geografiko euskaldunetan bereziki bermatu familia transmisioa, zerbitzu publikoak euskaraz eskaintzea eta erabiltzea, euskarazko zaintza zerbitzuak eta euskararen komunitatea indartzeko ekimenak.
	1. Komunitatearen trinkotasuna babestu, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren bideak baliatuta, Oikian bereziki. 2. Komentuko kultur topagunea baliatu etengabeko dinamika baten indargune izan dadin. 3. Hurbileko arnasmuneen eta udalerri euskaldunen arteko elkarlana bultzatu.

ERAGITEKO SEKTOREAK

Herritarrak, oro har, kontsumitzaileak, gazteak, euskal komunitatea...

ARDURADUNAK

Euskara Zerbitzua, Larraina, UEMA



5.5. Berrikuntza

Euskararen indarberritzean berrikuntza eginez gizarte osoarentzako onuragarri diren irtenbide berriak garatuko dira. Berrikuntza prozesuan baliatutako lankidetzak ereduak, baliabideak eta sortutako galdera berriak eragingo dute irtenbide berrien sorkuntzan.

B.1. Euskarazko berrikuntza ekosistema bat sustatu.

LAN ILDOAK	
1.1	Euskarazko berrikuntza ekosistema bat sustatu.
	1. Prestakuntza ikastaroak egin, jardunaldietan parte hartu eta ikuskera berriak landu. 2. Berrikuntza proiektuetan parte hartu eta ikasitakoak planean txertatu.

ERAGITEKO SEKTOREAK

Udala eta gobernantzako erakundeak

ARDURADUNAK

Euskara Zerbitzua, UEMA



5.6. Ikerketa / Sistematizazioa

Ikerketaren egitekoa izango da euskararen bilakaeraren gaineko jarraipena egiteaz gain, AROaren ardatzek dituzten jakintza beharrak elikatzea. Ikerketa prozesuan nahiz amaieran sortu diren praktika on eta arrakastatsuak sistematizatzeko estrategia lantzea ere izango da beste egitekoa.

IS.1. Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.

LAN ILDOAK	
1.1	Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.
	1. Kale erabilera neurketak egin eta ondorioak aztertu. 2. Herriko elkarteekin elkarlanean ikerketa bereziak bultzatzen jarraitu (haurren sozializazioa Larrainarekin...). 3. UEMAk, Soziolinguistika Klusterrak eta beste erakunde batzuek egiten dituzten ikerketak herriratu. 4. Unibertsitateko ikasleen artean herriko gaiekin eta euskararekin lotutako ikerketak egitea sustatu.

ERAGITEKO SEKTOREAK

Udala eta gobernantzako erakundeak

ARDURADUNAK

Euskara Zerbitzua, UEMA, Larraina



5.7. Komunikazioa / Hedapena

Komunikazioaren barne dimentsioari arreta jartzeko ekimenak lantzeko ardatza da hau. Norbanakoaren, eragileen, taldeen edo komunitatearen arteko harremanean eragingo da komunikazio eraginkorra lortzeko. Hedapenaren bidez, berriz, prozesuak eta emaitzak komunikatzeko estrategiak garatuko dira.

KH.1. Ardatz estrategikoetako lan ildo bakoitzak dituen xede taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio estrategia aplikatu.

LAN ILDOAK	
1.1	Planerako egokiak diren komunikazio estrategiak landu eta aplikatu.
	1. Euskararen inguruko zerbitzu eta baliabideak komunikatiboki zabaltu herritarren artean, Udalaren kanalak erabilia: webgunea, aplikazioa, sare sozialak... 2. Tokiko hedabideekin hitzarmenak baliatu euskarari lotutako gaiak ondo zabaltzeko direla bermatzeko. 3. Kanpainetan eta mezu jakin batzuk zabaltzeko bestelako bide informalak erabili: helbide zerrendak, eragileen kontaktuak... 4. Urteko helburu edo mugarri nagusiak identifikatu Euskararen Mahaian eta komunikazio plan batean antolatu.

ERAGITEKO SEKTOREAK

Eragin esparru guztiak

ARDURADUNAK

Euskara Zerbitzua, Udaleko komunikazio arduraduna



6. LEHEN URTERAKO LANAK

Dokumentuan azaldu den plan estrategikoak hamar urteko iraupena du. Ez da zehaztu ekintza bakoitza noiz landuko den, hori proposatzea Euskararen Mahaiaren zeregina izango da. Hori dela eta, 2025ari dagozkion lehentasunak azpiko taulara ekarri dira.

	NOIZ	NORK	ZER
Udalbatzak plana onartu	Maiatza	Zinegotziak	Udaleko Euskara Batzordea osatzen dutenei deialdia egin, eta planaren xehetasunak eman, eta funtzionamendua adostu
Bilguneak osatu. Dokumentu honetan 3 bilgune proposatu dira, baina beste arlo batzuetako eragileekin harreman zuzena izateko bideak bilatu beharko dira, batik bat arlo sozioekonomikoko eragileak (merkatari, ostalari eta enpresa zehatzak) eta gazteak.	Ekaina-iraila	Euskara Zerbitzuak	Bilguneak: diseinu fasean parte hartu duten eragile eta norbanakoei gonbidapena bidali.
Transmisio bilgunea	Ekaina-iraila	Euskara Zerbitzuak	- Plan estrategikoa: arloko helburuak azaldu - Bilgunearen funtzionamendua adostu - Euskararen mahairako ordezkariak izendatu
Kirol bilgunea	Ekaina-iraila	Euskara Zerbitzuak	- Plan estrategikoa: arloko helburuak azaldu - Bilgunearen funtzionamendua adostu - Euskararen mahairako ordezkariak izendatu
Kultur bilgunea	Ekaina-iraila	Euskara Zerbitzuak	- Plan estrategikoa: arloko helburuak azaldu - Bilgunearen funtzionamendua adostu - Euskararen mahairako ordezkariak izendatu
Euskararen mahaia: norbanakoak eta bilgune bakoitzeko bina ordezkari.	Iraila bukaeran	Euskara Zerbitzuak	- Plan osoaren aurkezpena egin (kokapena) - Lehenengo urterako lehentasunak adostu - Mahaiaren funtzionamendua adostu
Indarrean dauden ekintzen jarraipena egin.	Hilero	Euskara Zerbitzuak	Parte hartzea neurtu eta balorazioak egin. Urte amaieran memoria osatu
Proposatzen diren ekintza berriak aztertu eta urteko planera eraman.	Iraila bukaeran	Euskara Zerbitzuak	Euskararen mahaian proposatu diren ekintza berriak urteko planera ekarri. Urteko azken hiru hilabetera ekartzeko aukerak aztertu, ezingo balitz (kontratazioa, aurrekontua...), 2026ko planean txertatu
Komunikazio planerako baliabideak aztertu eta antolatu, ekintzak bideratu.	Apirila-maiatza	Euskara Zerbitzuak Komunikazio arduradunak	Komunikazio arduradunarekin batera komunikazio plana aztertu, egokitu, ardurak adostu, eta bideratu



6.1. Lehen urterako Komunikazio Plana

Zumaiaiko Euskararen Plan Estrategikoaren komunikazio planaren helburua da planaren zabalkundea eta ezarpena modu eraginkorrean bideratzea. Lehen urteko ekintzak argitaratu eta jakinarazteko baliabide eta estrategiak zehaztuko dira. Xumeki bada ere, egiten diren gauzak adierazi eta jakitera eman behar dira. Hau da, zer egingo den iragartzea ez ezik, egindakoa ere jakinarazi beharra dago.

6.1.1. KOMUNIKAZIOAREN HELBURUAK

- Plan estrategikoa herritarren artean ezagutaraztea.
- Herritarren parte hartzea sustatzea.
- Planaren jarraipena egitea eta emaitzak partekatzea.

6.1.2. KOMUNIKAZIO EKINTZAK

ZER (mezua, edukia)	NOLA (euskarria, kanala)	NORK	NORI (hartzailea)	NOIZ
Plan estrategikoaren aurkezpena	Albistea webgunean eta paperean	GUKAk	Herritarrak, parte-hartzaileak	Martxoan
Udalbatzaren onarpena	Udalaren webgunean eta prentsan	Udalak eta GUKAk	Herritar guztiak	Maiatzean
Plan estrategikoaren erreportajea	ESKURA udal aldizkarian	Udalak	Herritarrak	Ekainean
Bilguneak eta Mahaia martxan jartzea	Udalaren webgunean, prentsan, sare sozialetan, e-mail bidez	Udalak eta GUKAk	Jakineko jendea, ekarpen kualitatiboak egiteko prest daudenak	Irailean eta urrian
Urteko amaierako lehen balorazioa	Udalaren webgunean eta prentsan	Udalak eta GUKAk	Herritarrak	Abenduan
2026ko planaren ardatzak	Elkarriketa Mahaiko ordezkari bati, sare sozialetan argazkiak	GUKAk	Herritarrak	Urtarrilean



6.1.3. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

- Komunikazio ekintzen eraginkortasuna Euskararen Mahaian ebaluatuko da
- Herritarren parte hartzea eta feedbacka aztertuko dira informazioaren egokitasuna ebaluatzeko.
- Urteko balorazio txostenean puntu batean landuko da komunikazioa, eta hurrengo urterako estrategia egokituko da.

Komunikazio plan honen bidez, Zumaia Euskararen Plan Estrategikoa ezagutarazi eta herritarren parte hartzea sustatuko da, euskara biziberritzeko bidean pauso eraginkorrak emateko.